



LAN ARLOKO ERREFORMAREN INPAKTUA MUSIKAREN INDUSTRIAN

**Sympathy©
for the Lawyer**

**SYMPATHYFORTHELAWYER-EK EGINA
2024KO OTSAILA**

AURKIBIDEA

**01 KULTURAREN INDUSTRIARAKO
ESANGURATSUAK DIREN 5/2022 ERREGE
LEGE DEKRETUAREN ALDERDIAK**

**02 ARTISTEN GIZARTE BABESA ETA
ENPLEGUA**

**03 GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIOAREN
ALDAKETAK**

**04 EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN
KONTRATAZIOA SUSTATZEA**

01 KULTURAREN INDUSTRIARAKO ESANGURATSUAK DIREN 5/2022

ERREGE LEGE DEKRETUAREN ALDERDIAK

Espainiako kultura eta arteen sektoreak bultzada handia jaso du 5/2002 Errege Lege Dekretuaren promulgazioarekin. Arau horrek aldaketa garrantzitsuak ekarri ditu, eta ez bakarrik kontratazioan eta lan baldintzetan. Oro har aldizkakotasun handia izaten duen sektore honetan, lan arloko eskubideen inguruan dagoen kezka gero eta handiagoari erantzuna eman dio ere.

Enplegatzaile kontzeptua zabaltzea jarduera artistikoetan

Legeak enplegatzailearen kontzeptua zabaltzearen testuinguru kulturean; beraz, enplegatzaile gisa identifikatzen ditu jarduera artistiko baten antolatzaile edo produktore guztiak, eta horrek inplikazio nabarmenak ditu lan arloko erantzukizun eta betebeharrei dagokienez.

Aplikazio eremua

Dekretuak lan arloko araudi bereziaren aplikazio eremua indartu eta argitu du, berariaz sartzen baititu arte eszenikoetako, ikus-entzunezko eta musikaren arloko jarduerak garatzeko beharrezkoak diren jarduera artistiko, tekniko eta lagungarriak.

Jarduera artistiko, tekniko edo lagungarriak

Araudi berriarekin historikoki zaugarriagoa izan den kolektibo bat babestu nahi izan da, hau da, teknikari eta laguntzaileena. Horretarako, jarduera tekniko eta lagungarriak eremu artistikoko lan harreman bereziaren parte integrala direla aitortu da, horien barne direla ekitaldi, ikuskizun eta emanaldiekin lotura zuzena dutenak eta baita ekitaldi, ikuskizun edo jarduera artistiko edo entretenimendu bat behar bezala egikaritzeko edo jarduera prestatu, muntatu edo teknikoki laguntzeko beharrezkoak direnak. Era berean, jostuntza, ile apainketa, makillajea eta antzeko lan lagungarriak ere kategoria horretan sartu dira, betiere enpresak egiturazko moduan edo modu iraunkorrean garatzen ez baditu.

01 KULTURAREN INDUSTRIARAKO ESANGURATSUAK DIREN 5/2022

ERREGE LEGE DEKRETUAREN ALDERDIAK

Kontratuaren forma

Lan kontratu artistikoak idatziz gauzatu beharko dira beti, iraunaldia edozein dela ere, enplegataileari zein langileari gardentasuna bermatze aldera. Iraupen mugatuko kontratuaren formari dagokionez, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak (SEPE) argitaratu dituen ereduak baliatuko dira, zehazki, 407 eta 507 kodea dutenak, lanaldi osoko edo partzialeko kontratuak izatearen arabera.

Kontratu modalitate berriak eta horien baldintzak

2022ko lan arloko erreformarekin, kontratu finkoa sektore guztietako arau orokor bihurtu zen, eta denborazkotasuna aparteko neurri bilakatu zen, justifikazio oso sendoa behar duena. Hala ere, 5/2002 Errege Lege Dekretuak aldi baterako kontratuak gauzatzea aurreikusten du sektore kulturalako profesionalen lan eskubideak arautzeko. Modu horretan, araudi berriak aitortu egin du denborazkotasuna dela kulturaren alor profesionalaren ezaugarri nagusietako bat. Aldi baterako lan kontratu artistiko berriak zenbait ezaugarri espezifiko ditu, esaterako:

- Enpresaren aldi baterako beharrak asebetetzeko ituntzen da eta ezingo da erabili egiturazko behar iraunkorrak estaltzeko.
- Emanaldi edo ekitaldi baterako edo gehiagorako hitzartu ahalko da, denbora jakin baterako, denboraldi baterako edo obra baten edo ekoizpen baten faseen iraunaldirako.
- Teknikari eta laguntzaileen kasuan, kontratu hori gauzatu ahalko da jardueren lotura zuzena eta eskusiboa badute ikuskizunarekin edo jarduera artistikoaren garapenarekin.
- Tuntzea justifikatu zuten enpresaren aldi baterako beharrak luzatu egiten badira, kontratua ere luzatu ahalko da, baina zehatz-mehatz adierazi beharko dira kontratuan aldi baterako kontratazioa gaitzen duen zergatia, hura justifikatzen duten inguruabar jakinak eta aurreikusitako iraupenarekiko lotura.

01 KULTURAREN INDUSTRIARAKO ESANGURATSUAK DIREN 5/2022

ERREGE LEGE DEKRETUAREN ALDERDIAK

Kontratazioan abusuak prebenitzea

Lan arloko prekarietatea prebenitzeko helburuarekin, lege berrian xedatu dira aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzeko bete beharreko baldintzak eta aldi baterako kontratuen kateamenduen mugak.

Kontratua azkentzeagatiko kalte ordainen hobekuntzak

Horrez gain, dekretuak hobekuntzak sartu ditu kontratua azkentzeagatiko kalte ordainetan, proiektu artistikoak amaitzean langileen zaurgarritasuna murrizteko helburuarekin.

Araudi berriaren arabera, 12 eguneko kalte ordaina emango da zerbitzu urte bakoitzeko, bai artisten zein teknikari eta laguntzaileen kasuan ere, edo 20 egunekoa kontratuak eta bere luzapenek 18 hilabetetik gorako iraupena izan badute.

30 egunetik beherako kontratuen zehapena eta kontribuzio gehigarria kentzea

Aldi baterako lan kontratu artistiko berriak ez du zehapen ekonomikorik izango 30 egunetik beherakoa izateagatik. Hori oso garrantzitsua da sektoreko kontratuek sarritan izaten duten iraupen laburra kontuan hartuta.

Gizarte Segurantzaren Lege Orokorraren testu bategina aldatu da 30 egunetik beherako aldi baterako kontratuen kotizazio gehigarria salbuesteko, betiere arte eszenikoetako eta ikus-entzunezko zein musikaren arloko jarduera artistiko, tekniko eta lagungarriak egiten dituzten pertsonen lan harreman bereziaren esparru barruan gauzatzen badira.

02 ARTISTEN GIZARTE BABESA ETA ENPLEGUA

Langabeziako prestazioa

Berrikuntza nabarmenetako bat artistei zuzendutako langabeziako prestazioa da, lanbide hauen aldizkakotasunera bereziki egokitzeko diseinatu dena.

Artistez gain, prestazio hori eskatu ahalko dute ere sektoreko lan tekniko edo lagungarriak gauzatzen dituzten pertsonak. Beste baldintza batzuen artean, azken 18 hilabeteetan gutxienez ere 60 egun kotizatu izana eskatuko da, edo sei hilabete azken sei urteetan.

Prestazioak 4 hilabeteko iraupena eta OAEAParen %80ko zenbatekoa izango ditu, eta OAEAParen %100ekoa 61 euro/hilabetea baino altuagoak izan diren kotizazioen kasuan. Gainera, prestazio hori bateragarria izango da jabetza intelektualeko eskubideak eta irudi eskubideak jasotzearekin.

Pentsioen eta egile eskubideen arteko bateragarritasuna

Erretiro pentsioen eta jarduera artistikoaren zein jabetza intelektualeko eskubideen arteko bateragarritasuna arautu da, eta hori aurrerapauso handia da sektoreko gizarte babeserako.

Sektorearen jarraipena egiteko batzordeak

Xedapen berrien arabera, jarraipen batzordeak sortuko dira hartutako neurrien inpaktua ebaluatzeko eta neurri horiek kulturaren arloko profesionalentzat dituzten eraginkortasuna eta egokitasuna ziurtatzeko.

03 GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIOAREN ALDAKETAK

Kotizazio murriztua diru sarrera txikiak dituzten artista autonomoentzat

Gizarte Segurantzaren kotizazio murriztu bat ezarri da urtean 3.000 eurotik beherako irabaziak dituzten artistentzat. Horren helburuak dira, alde batetik, diru sarrera txikiak dituztenen karga ekonomikoa arintzea eta, bestetik, behar duten gizarte babesa jasoko dutela bermatzea.

Profesional bakoitzaren diru sarreretan eta garatutako jarduera motan oinarritutako kotizazioen erregimenean aldaketak egin dira, kotizazio hori langile bakoitzaren errealitate ekonomikora egokitzeke.

Artisten kotizazio oinarria 2024an

2024ko urtarrilaren 1etik aurrera, Gizarte Segurantzaren beste eskubide batzuen kotizazioari eta likidazioari buruzko Erregelamendu Orokorren 32.3 artikulua arabera, kontingentzia arruntetarako gehieneko kotizazio oinarria hilean 4.720,50 eurokoa izango da artisten kategoria profesional guztietan.

Artista batek enpresa batentzat edo gehiagorentzat gauzatu dituen jardueri lotutako kotizazio oinarriaren gehieneko mugak urtebeteko izaera izango du eta adierazitako hileko oinarria urtebetera zabalduz kalkulatu da.

Artisten inaktibitate garaietan zehar aplikatuko den kotizazio oinarria, Gizarte Segurantzaren Erregimen Orokorrean alta egoera mantentzea aukeratzen bada, momentu bakoitzean indarrean dagoen gutxieneko oinarria izango da, kontingentzia arruntetarako, hau da, erregimen horretako kotizazio taldeen eskalaren 7. taldekoa. Aplikatuko den kotizazio tasa ehuneko 11,50 izango da.

03 GIZARTE SEGURANTZAREN KOTIZAZIOAREN ALDAKETAK

Aipatu erregelamenduaren 32.5b) artikuluan aurreikusitako artisten kotizazioa zehazteko konturako kotizazio oinarriak honako hauek izango dira, kotizazio talde guztientzat, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrera:

| Ordainsariak guztira | Euro/eguna |
|---------------------------------|------------|
| 534,00 euro arte | 314,00 |
| 534,01 eta 961,00 euro artean. | 396,00 |
| 961,01 eta 1.608,00 euro artean | 473,00 |
| 1.608,00 eurotik gora. | 628,00 |

Artistentzako atxikipen eta PFEZ tasen aldaketa

Erregulazio berriaren alderdi garrantzitsu bat fiskalitatean duen eragina da; izan ere, nabarmen murriztu ditu artisten PFEZ atxikipen tasak: % 15etik % 2ra laneko irabazien kasuan, eta % 7ra jarduera ekonomikoen irabazi jakinen kasuan. Horrek bultzada berria emango dio ikuskizunetako profesionalen jarduera ekonomikoari.

Musikaren sektorean, horrek eragina izango du besteren konturako kontzertu aretoetako eta musikaletako langile, soinu teknikari, argi teknikari eta abarrentzat. Labur esanda, aurrerapauso handia izango da langile artistiko eta ekoizpen eremuko langile guztientzat oro har, atxikipena murriztuta, jasoko duten soldata garbia handiagoa izango baita.

04 EUSKAL AUTONOMIA

ERKIDEGOAN KONTRATAZIOA SUSTATZEA

Euskal Autonomia Erkidegoak artistak kontratatzekeo zenbait dirulaguntza eta laguntza eskaintzen ditu, kultura sustatzeko eta sektoreko profesionalak babesteko xedez.

Eusko Jaurlaritzak ematen dituen dirulaguntzez gain, tokiko eta probintzia mailan ere badira laguntza eta deialdiak, hainbat udalerritan, artisten kontratazioan laguntzeko. Dirulaguntza horiek, artistentzat onuragarriak izateaz gain, enpresentzat ere mesedegarriak dira, kulturaren garapena eta kulturaren arloko enplegu sorrera sustatzen baitituzte.

Eusko Jaurlaritzak ematen dituen dirulaguntzez gain, tokiko eta probintzia mailan ere badira artistak kontratatzekeo laguntza eta deialdiak.

Laguntzak Gasteizen

Gasteizen, esaterako, 6.000 €-ko laguntza eskaintzen da ikuskizun publikoetako artistak eta teknikari zein laguntzaileak kontratatzekeo. Dirulaguntza hori eskuratzeko, beharrezkoa da langileak langabeak izatea eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegu eskatzaile moduan izena emanda egotea.

Horrez gain, pizgarri gehigarriak daude 35 urtetik beherako eta 55 urtetik gorakoentzat, iraupen luzeko langabeentzat edo Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren (DSBE) onuradunentzat. Kasu horietan, laguntza 7.500 €-ra iritsi daiteke eta % 10 areagotuko da kontratuak emakumeekin gauzatzen badira. Diruz laguntzeko moduko kontratuaren gutxieneko iraunaldia 3 hilabetekoa da, gutxienez ere % 50eko lanaldiarekin. Eskabideak 2023ko abenduaren 28tik 2024ko maiatzaren 31ra arte aurkeztu ahal izango dira.

04 EUSKAL AUTONOMIA

ERKIDEGOAN KONTRATAZIOA SUSTATZEA

Laguntza Urola Garaia Mankomunitatean

Bestalde, Urola Garaia Mankomunitateak ere abian jarri ditu ikuskizun publikoetako artistak eta teknikari zein laguntzaileak kontratatzeke tokiko laguntzak. Pizgarri politika baten esparruan kokatzen diren laguntza horiekin kulturaren sektorearen enplegarritasuna sustatu nahi da. Enpresek bi kontratazio egiteko eskatu ahalko dute dirulaguntza gehienez, mugagabeak edo aldi baterakoak, betiere langileak % 50eko lanaldia badu gutxienez. Dirulaguntzaren zenbatekoa 33.600 eurokoa da eta eskabideak aurkezteko epea urtarrilaren 22an amaitu zen.

Euskadiko Arte Grafikoen hitzarmen kolektiboa

Euskadik duela gutxi estreinatu du arte eszenikoen hitzarmena, sektoreko lan prekarietatearen aurka borrokatzeke. Zenbait sindikatu eta kulturaren alorreko elkartek izenpetu duten akordioarekin arte eszenikoetako langileen baldintzak erregulatu eta hobetu nahi dira, lanaren ordain duina ziurtatzeaz gain.

Akordioan aurreikusitako ekintzen artean daude lan kontratazioa erregulatzea, langileen gizarte babesa, laneko arriskuen prebentzioa eta gizon eta emakumeen berdintasuna sustatzea. Gauzak horrela, hitzarmena indarrean sartzearekin batera Euskadiko arte eszenikoen sektoreari bultzada ematea eta sektoreko artista eta profesionalentzat ingurune egonkorrago eta profesionalagoa sortzea espero da.

04 EUSKAL AUTONOMIA

ERKIDEGOAN KONTRATAZIOA SUSTATZEA

Euskadiko Arte Grafikoen hitzarmen kolektiboa

Hona hemen Euskadiko arte grafikoen hitzarmen kolektiboaren alderdi nagusietako zenbait

- Urtean 1.782 orduko gehieneko lanaldia ezarri da, 1.660 lan ordu eraginkorrekin.
- Kategoria eta maila profesional bakoitzarentzako gutxieneko soldatak ezarri dira, urteko soldata igoerekin.
- Lan denboraren arabera, % 3ko antzintasun osagarri bat aurreikusi da hirurteko bakoitzeko.
- Kategoria eta maila profesional guztiak definitu dira, beren eginkizun eta betekizunekin.
- Lan urte bakoitzeko 30 jaieguneko oporraldia ezarri da.
- Genero berdintasuna sustatzeko neurriak, batez ere lan bizi eta familia bizi bateratzekoak.
- Trebakuntza profesionalaren garapena sustatzen da eta, zentzu horretan, langile eta enpresen eskubide eta betebeharrak definitu dira.
- Sektoreko enpresen sailkapenerako kategoriak eta betekizunak ezarri dira, bakoitzaren ekoizpen gaitasunaren eta ezaugarri teknikoaren arabera.



musikabulegoa.eus



Sympathy for the Lawyer
www.sympathyforthelawyer.com

**Sympathy[©]
for the Lawyer**